

{ asteari zeharka begira } **Ramon SOLA**

Donejakue Bidetik Parisera gurea erakusteko beharra

Bakartxo Ruizen ahotan entzun nuen parte hau, ekaineko Europako hauteskundeetan kanpainan. Anekdotak Donejakue Bidean gertatu zen, Pirinio aldeko herri txiki batean: Garraldan. Bertatik igaro zen Herbehereetako erromes bat EH Biluren mitina entzuten geratu zen eta galdezka hasi zitzaion gero, zein ote zen alderdi horren lerro ideologiko eta politikoa jakin nahian. Azalpenak entzun ondoren, guztiz harrituta agertu zen gizona, miresgarria iruditu zitzaiolako ezkerrekoa eta independentziaren aldekoa zen indar batek herrixka hartan eta hauteskunde apal haietan hainbeste jende bildu izana.

Santiagorantzko bidean aurrera eginda, erromesak Atarrabiara heltzen dira egunero, uda partean tropelka. Elizarekin batera pilotalekua da arretagune berezia beraientzat: euskal bitxikeria bat, finean. Nago aurrerantzean bisitari gehienak harrituko direla burua altxatu eta zazpi koadrotxo dituen armarrian bat bakarra betea ikustean. Galdetuz gero, norbaitek azalduko die epaile baten erabakiaren ondorioz hustu dituztela gainerako seiak, Euskal Herria lur horretan irudikatzea bekatu larria omen delako. Commonwealth-eko armarrria balitz, demagun, edo Afrikako Adarra-rena, edo Pirinioetako Lan Elkartearena gertuko adibidea nahi bada, horiek ere ezabatzea aginduko ote luketen galdetuko dio bere buruari, erokeria galanta baita. Eta “*Santiago y cierra España*” lelo hark XXI. mendean indarrean segitzen duela ondorioztatuko du beharbada.

Erabaki horrekin Atarrabiako Udalak bete-betean asmatu duelakoan nago. Nazio baten ukazioa, demokrazia falta eta agintekeria agerian uzteko modu era-

ginkorra lortu du, debekatzailak irrigarri utzirik bertakoen eta kanpokoen begietara. Pedagogia hori behar du oraindik ere herri honek, eta aldi berean bere izaera erakutsi beharrean da, estatuen propagandaren aurrean Euskal Herria gero eta ikusezinagoa bilakatuko ez bada. Pasatutako pantaila dirudi, jada emandako borroka, baina gaurkotasuna badu.

Izan ere, Donejakue Bidearen kontrako norabidea hartuta, euskal ikurrik ez da agertu Pariseko Joko Olinpikoetan. Are deigarriago, neure kasuan, arretaz aztertu ondoren, bi ikurrina baino ez ditut ikusi lehia-kideen argazkietan: bata Filipinetako selekzioan diharduen Ibarako lasterkari batena (John Cabang) eta bestea, Alemaniako futbol selekzioaren brontzezko domina lortu duen futbolari batena (Bibi Schulze). Horregatik susmoa dut Espainiaren banderapean lehiatu diren kirolari guztiei debekatu edota ohartarazi zaiela «ikur autonomikoak» ez zituztela atera behar txandak gorri-horia jantzita zuten bitartean.

Atarrabiako pedagogia hori behar du oraindik ere herri honek, estatuen propagandaren aurrean Euskal Herria gero eta ikusezinagoa bilakatuko ez bada

Bitartean, Kataluniako txiolarik batek nabarmendu duen moduan, espainiar hedabideentzat Carlos Alcaraz Murtziakoa da eta Rafa Nadal Balearreetakoa, baina Aitana Bonmatí eta Beñat Turrientes, biak espainolak, espainolak baino ez.

Ezin estatuei errua bota, ordea, beren lana baino ez dutelako egiten: Euskal Herria Euskal Herriak adierazi beharko du, argitara atera, ez du beste inork egingo. •